

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Botiken boterea

CINCHONA GENEROKO kino zuhaitzen azaletik sortutako kinina helgaitza edo malaria tratatzeko ona zela zabaldu zenean, European izen ugari eman zitzaion azal horri. XVII. mendearen erdian Peru eta Bolivia aldean erregeorde “lanetan” zenaren emaztea zen eta ustez kininaren berri zabaldu zuen Chinchongo kondesaren omenez “kondesaren azala”, ustez benetan jakintza hori topatu eta jaso zuten gerlarien omenez “jesuiten azala” eta topatu zen tokiaren goraintzian “Peruko azala”. Jakinduria hori ikertu eta bere altzoan jaso zuen kulturaren omenez “kitxuen azala” jartzea ez zitzaion inori bururatu European.

Jesuita batek Erromara bidali eta padura eta istingadi ugariz inguratutako hirian helgaitza sendatze bidean jarri zuenean, laster zabaldu zen kininaren dohain eta ahalmenen albiste. Denek nahi zuten etorkizun handiko botika horren irabazpide onuragarriaren puskaren bati heldu. Ameriketatik Espainiara etengabe iristen ziren lurralde haietan topatutako genero horretako espezie berrien berriak. Ingelesak eta herbeheretarrak ez ziren makal ibili, eta Ameriketatik esportatzea galarrakia egonagatik, non edo handik lortzen zituzten haziak, estraperloan errearen goiti ordainduta, ziur aski.

Kininari esker lasai sartu ziren europarrak Afrika beltzean, sekula igaro gabeko zingira eta ur-ustel bel-dugarrietan barrena. Munduaren gerri aldeko tropikoetan burutzen ziren gerretan estrategiko bihurtu zen kinina: Indian eta Asia hegoalde osoan eta Afrikan batez ere. Herbeheretarrak ekoizpenean eta merkaturatzean tematu ziren. *Cinchona calisaya* espeziea luze-zabal landatu zuten Javan eta 1930eko hamarkadan hamaika milioi kilo kinina ekoizten zuten urtero, munduko kinina ekoizpenaren %97. 1944an kinina sintetiko sortu zuten laborategian, baina ikaragarri garestia zen. Bigarren Mundu Gerran alemanek Herbehereak eta japoniarrek Filipinak eta Indonesia okupatu zituzten eta helburu zuten kininaren mundua bereganatu. AEB konturatu zen, baita Filipinetatik lau milioi hazi ezkutuan ateratzea lortu eta Costa Rican landatu ere, baina berandutxo!

Cinchona calisaya espezieko kino arbola Boliviako Calisaya mendian aurkitua zuten. Berari buruzko lehen aipamena 1792ko urriaren 27an idatzitako eskutitz batean dago. Chinchongoarenak ez, oraingoan beste konde baten idazkariak idatzitakoa, Beirako Ezpeletako kondearenak, Kuban gobernadore eta Hego Amerikan erregeorde izan zenarenak, Jose Manuel Ignacio Timoteo de Ezpeleta y Galdeano (1739-1823).



Irakurleak galdezka

Kaixo Jakoba! ARGIA-ko azken aldizkarietan agertutako sendabelarren gainean galde-tu nahi dizut. Badakit tokian tokiko espresioak daudela eta belar ezberdinek izen bera eraman dezaketela, baina neuk eza-gutzen dudak txitxare belarra latinezko *Tanacetum parthenium* izango litzateke, eta zuk aldizkariaren 2.318. zenbakiko argazkian *Artemisa vulgaris* (belar mina) izenarekin azaltzen duzuna bera da.



Tanacetum parthenium.

Ez dakit *Matricaria parthenium* eta *Tanacetum Parthenium* berdinak diren eta zenbait lekutan *Artemisa abrotanum* ere txitxare belar bezala ere ikusi dut. Nahaste izugarria dut familia horrekin. Argitzea bai ote? Pili Otaegi (Larraul).

Kaixo Pili. Egia da, izenak eta izanak nahasten ditugu. Txitxare-belar edo zizare-belar izena landare askorena da. Aipatzen duzun argazkikoa *Artemisa vulgaris* da, ez *Tanacetum parthenium*. Artemisiak lore grisaxkak ematen ditu, Tanacetumak, aldiz, larranbiloa edo kamamila antzekoak.

Compostae edo lore elkartu edo konposatuak dituzten landareen familia hori ikaragarria da. Elkarrengandik bereizi eta bere sendagaitasuna ezagutzen hasteko nik dakidan bide motzena Pio Font i Quer maisuaren *Plantas medicinales, El Dioscórides renovado* liburua da.



Lore-lan
Lurez S. Coop.

Lorezaintza proiektuak
Mantentze-zerbitzua

Tel. 609 42 45 47 · Faxa: 943 79 49 12 • lorelan@euskalnet.net